

Pastora Otadui Ezpeleta
Bergara, Gipuzkoa (1925-2016)

Aurkibidea

Biografia

Arrasaten jaio zen 1925ean. Zortzi anai-arreba bizi ziren Musakola auzoko baserrian. Baserria kale-baserri modukoa zen eta taberna eta estankoa zituzten etxean bertan. Ahizpa nagusiena beste ama batena zen eta 25 urteko diferentzia zegoen beren artean. Ume-umetan Musakolan bertan ibili zen eskolan, baina bost urte zituela aita hil egin zen eta osaba-izeba batzuek Bergarara eraman zuten eurekin bizitzeko.

Zintak

BER-225

- **Proiektua:** Dialektologia-EHU
- **Elkarrizketatzailea(k):** Laborda Otadui, Miren
- **Data:** 1998-01-01
- **Iraupena:** 44 min
- **Euskarria:** Audio Analog
- **Kodifikatzailea:** Goiria Mendiola, Nerea
- **Transkribatzailea(k):** Etxeberria, Eider

- **Emalea:** Zuazo Zelaieta, Koldo

Pasarteak

1. 1925ean jaioa, zortzi seme-alabadun familian

- **Erref:** BER-225/001
- **Iraupena:** 0:00:55. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:00:55

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

1925. urtean jaio zen Arrasaten. Zortzi anai-arreba bizi ziren baserrian, kaleko baserri batean. Taberna eta estankoa ere bazen beraien etxea. Ahizparik zaharrena aitaren lehen emaztearen alaba zen, Pastora baino 25 urte zaharragoa.

2. Osaba-izebekin Bergarara

- **Erref:** BER-225/002
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 00:00:55. **Bukatu:** 00:02:00

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Arrasaten Musakola auzoan bizi zirenez bertako eskolara joan zen. Baina bost urte zituela aita hil eta osaba-izebekin Bergara joan zen bizitzera. Osaba oso umoretsua zela dio.

3. Osaba

- **Erref:** BER-225/003
- **Iraupena:** 0:01:23. **Hasi:** 00:02:00. **Bukatu:** 00:03:23

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Osaba Aranerreko Aranerdiko baserrian jaiotakoa zen, oso baserri handia da. Anai-arreba asko izan zirenez bederatzi urterekin Lasturretxe baserrira morroi joan zen. Bertan gauez beti gaztaina egosita, onak zein ustelak, afaltzen zituzten.

4. Arabara gaztelania ikastera

- **Erref:** BER-225/004
- **Iraupena:** 0:01:58. **Hasi:** 00:03:23. **Bukatu:** 00:05:21

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

<p>Osaba 11 urterekin Arabara joan zen gaztelania ikastera, orduan ohikoa zen hori. Urtean, hiru ogerleko eta bota pareta jasotzen zuen ordainetan. Bertan gaztelania ikasten zebilela izandako anekdota bat kontatzen du. Ama gaixotu eta Bergarara bueltatu zen, Gasteiztik Leintz Gatzagarako tren hartuz.</p>

5. La Peñako meategietan errekadista

- **Erref:** BER-225/005
- **Iraupena:** 0:01:13. **Hasi:** 00:05:21. **Bukatu:** 00:06:34

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak
- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak

Laburpena:

<p>Osaba 14 urterekin Bilbora joan zen mandatari lanetara. Meategiak zeuden La Peñan eta handik astoarekin edo mandoarekin Bilboko zazpi kaleetako denda batera joaten zen jenero bila. Meategietako lehenengo greba izan zenean, Guardia Zibilek bertatik irteten ziren beharginak zelan hiltzen zituzten ikusi zuen bere osabak.</p>

Transkripzioa

- Gero, berriz, hamalau urtekin edo bialdu zezen Bilbora rekadista bezela mineruekin. Minak zeren La Peñan. Eta bera, beran lana zan astua, ba astua edo mandua, ez dakit ze zan, eta han Peñatik Bilboko Zazpi Kaletako denda batera juaten zan jeneruan billa. Han bialtzen zotsen, bueno, “zuk ekarrizu hau ta hau”, listia pentsatzen dot emongo zotsela. Eta han emakume bat beti esaten ei otsan “etorri hona, etorri”, eta emoten zotsala ardau goxo kopatxo bat. Horrekin asko akordatzen zan. Eta bueno, han egon zan. Eta gero harek kontatzen zeban, lenengo huelgiak irten zebanian, han minetan, ba La Peñan, bera han zeuala, ta ikusi zebala “guardia de asalto” edo guarda zibillak, ez dakit ze zien, mineruak huelgan zerelako irten ahalan, danak hiltzen zittuela. Eta hori esaten zeban.

6. Baserritarrei burla

- **Erref:** BER-225/006
- **Iraupena:** 0:02:19. **Hasi:** 00:06:34. **Bukatu:** 00:08:53

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea
- Politika » Gerra aurea » XIX. Mendea

Laburpena:

<p>Osaba Valladoliden egon zen soldadu. Zazpi kinta ezberdin egon ziren, Kubako gerra orduan amaitu ei zen. Baserritarrei burla egiten zieten. Bertan izandako anekdotak eta istorioak kontatzen ditu.</p>

7. Gasteizera zein Bilbora oinez edo astoz

- **Erref:** BER-225/007
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:08:53. **Bukatu:** 00:10:03

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

Arrasateko bere izeko batek errota zuen Arrasaten eta zapatu goizetan Gasteizera joaten zen jeneroa saltzera. Apitto abarketaria ere Bilbora joaten zen mandatari, oinez goizeko hiruretan-edo irtenda.

8. Bergara gerran

- **Erref:** BER-225/008
- **Iraupena:** 0:04:40. **Hasi:** 00:10:03. **Bukatu:** 00:14:43

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

<p>Berak 11 urte zituela hasi zen gerra. Lehenengo frontoian jasotzen zituzten eskolak eta urte hartan "enseñanza"n zegoen. Han "externa", "media pensi" eta "interna" esaten zitzaienak egoten ziren. Gerra hasi zenean, Bergarara sartu zenean, soldaduak ikusi zituzten kaleetan "viva España"ka. Jendeak ihes egin zuen, beraiek etxean geratu ziren. Orduko alkateak, Ignacio Zubizarretak izan zuen ardura inork inor ez hiltzeko, baina hark alde egin eta gero, CNTko batzuk etorri eta Bergarako frontoiko garbitokian Antzuolako sakristaua hil zuten. Hura ikustera joan ziren. Goienkalean ere bonba bat bota zuten eta gaixo zegoen mutiko bat hil zuten. Bonbak ez zirela hain handiak dio. Babesgunera joaten ziren, zuzendariaren etxeak zuen sotora, jende mordoa batzen zen han azpian. Anekdota eta istorio asko kontatzen ditu.</p>

9. Nazionalak vs gorriak

- **Erref:** BER-225/009
- **Iraupena:** 0:01:38. **Hasi:** 00:14:43. **Bukatu:** 00:16:21

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

<p>Nazionalak sartu zirenean, bere osabari 250 pezetako isuna kendu zioten. Bergaran ez zuten inor hil, baina Bekolalden-edo bai hil zituzten gizon batzuk. Arrasaten ere bi abade-edo hil zituzten. Beraien lehengusu bat gorrien kapitaina zen; eta, semea kapitaina izatearren, aita kartzelara sartu zuten, udaletxeko kartzelara. Bonbardatzera etortzen zirenean gorriak, plazara ateratzen zituzten presoak.</p>

10. Euskaraz ezin

- **Erref:** BER-225/010
- **Iraupena:** 0:00:49. **Hasi:** 00:16:21. **Bukatu:** 00:17:10

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

<p>Ezin zen euskaraz egin; sermoiak eta dena erdaraz ziren. Baserrietako umeak eskolara joan eta konplexuz betetzen ziren, besteak baino gutxiago zirelakoan.</p>

11. Bergarako kondeak

- **Erref:** BER-225/011
- **Iraupena:** 0:03:54. **Hasi:** 00:17:10. **Bukatu:** 00:21:04

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:

Bergaran bi konde zeuden: Goiko kondekoa "Conde de Villafranca" eta Beheko kondekoa (Euskadiko Filmoteka dagoen lekuan). Bertakoa familiaz eta pribilejioez hitz egiten du. Beste kondeak, Santa Anakoak "Conde del Valle" Arrudiagan bizi ziren, orain Kultur Etxea dagoen lekuan bizi ziren. Hauek nolakoak ziren kontatzen du. Hainbat kontu gehitzen ditu: herritarrekin zuten harremana, etxean zituzten langileak, etxea nolakoa zen, dendatik errekadutan bertara joaten zenekoa...

12. "Duque de Sotomayor", "Duquesa de Alba"ren senarra

- **Erref:** BER-225/012
- **Iraupena:** 0:00:46. **Hasi:** 00:21:04. **Bukatu:** 00:21:50

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:

Oñatin etxea zuen Sotomayorreko dukea etortzen zen Bergarako Del Valle kondearengana. Sotomayorreko dukea Albako dukesaren senarra zen.

13. Don Luis Ruiz de la Prada y Martinez de Torres alkatea

- **Erref:** BER-225/013
- **Iraupena:** 0:00:47. **Hasi:** 00:21:50. **Bukatu:** 00:22:37

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Udala

Laburpena:

Bergaran Madrilgo alkate bat zegoen, Don Luis Ruiz de la Prada y Martinez de Torres. Bergarako emaztea zuen eta seme-alabak ere bai.

14. Frontea Elgetan

- **Erref:** BER-225/014
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 00:22:37. **Bukatu:** 00:24:22

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

Frontea Elgetan egon zen, Asensio mendian. Bederatzi hilabetez egon ziren, gero Bilbora joan ziren. Tropa asko egon ziren: alemaniarrek, italiarrak eta moroak. Hainbat istorio kontatzen ditu. Esate baterako, behin moro batek beste bat hil zuela eztabaida bat izan ostean.

15. Txibisto "bandidoa"

- **Erref:** BER-225/015
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:24:22. **Bukatu:** 00:25:42

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:

Bergaran pertsonaia xeblebre asko egon dira. Bere osabaren jaiotetxean jaiotako "Txibisto", Silvestre Ariznabarreta, alproja ospetsua izan zen Espainia osoan. Kristorenak eta bi egindakoa zen Pastorak kontatzen dituen istorioen arabera.

Transkripzioa

- Gero tipo zelebriak be egon die Berga(ra)n. Bueno, nik batzuk ezautu dittut. Bat, haura ez neban, bueno ezautu neban hemen hil zalako ospitalian, oin ez dakit zenbat urte, baiña gure tion etxian jaiotetxian jaiotakua. Hiru bizitza ei zeren han, eta zan Txibisto don Silbestre Ariznabarreta, baiña Txibisto esaten zotsen danak. Ta haura izan bihar izan zan bandidu famosua Espaiña guztian. Kriau egon zan hantxe gure tiak esan dot Errotako Mondrauen, kriau egon zan han. Eta gero Espaiñan gizonak eta hil zittuan. Eta egon zan Okañan edo preso urte askuan. Handik iges ein, eta etorri zan, ta zela ezautzen zeban Mondrauen Legarre errotia, Legarre zan gure tian ta errotia, han lapurretan itteko asmuhan edo sartu zan, eta tiruak eta bota zittuan. Gero ez dakit, ni akordatzen naiz gero ya xahartuta, hemen gizon haundi bat zan. Ospitalian hil zan.

16. Esteban Kapaña

- **Erref:** BER-225/016
- **Iraupena:** 0:02:28. **Hasi:** 00:25:42. **Bukatu:** 00:28:10

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:

Esteban Kapaña beti mozkortuta ibiltzen zen. Marianonera joan eta inoiz ez

zuen ordaintzen. Danbolintzerokora joan eta behin bertako Eustakioarekin izandako berriketaldia kontatzen du. Beste behin soldaduek mozkortuta eraman zuten etxera. Antzuolakoa zen berez Esteban.

17. Antzuolar bikote baten haserrea

- **Erref:** BER-225/017
- **Iraupena:** 0:00:45. **Hasi:** 00:28:10. **Bukatu:** 00:28:55

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:

Antzuolar bati emaztea behin haserretu zitzaion eta senarra abadearengana joan zen esatera emaztea berba barik zela. Abadea orduan arduratuta etxera joan eta ikusi zuen andreak egiten zuela berba.

18. Luis "barberua"

- **Erref:** BER-225/018
- **Iraupena:** 0:00:56. **Hasi:** 00:28:55. **Bukatu:** 00:29:51

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

Luis "barberua" Arrudiagan bizi zen baina artekalean, Marianonekoaren ondoan zuen bizartegia. Txikito asko hartzen zituela kontatzen du Pastorak, behin bati bizar erdia moztu, tabernara joan eta ez zen gehiago bueltatu.

Transkripzioa

- Gero beste bat zauan, Luis, Luis Barberua. Haura be haura be Arruriagan bizi zan, baiña Artekalian zeukan Marianoneko onduan barberixia. Haura be beti egoten zan txikituekin ondo. Egun baten, Anita Bilbaok esaten zeban, beran aitta juaan zan bizarra kentzera, eta erdixa in zotsan, ta esan zotsan "bueno, itxoin pixkatian e?". Juaan zan tabernara, ta gehixau ez zan agertu. Erdixa bizarra kenduta, ta bestia kendu barik. Ni harekin akordatzen naiz, gero igual joaten zan antxintxiketan kalia "iupaaa! lupaaa!" eta puzkarra bota "iupa!" ta "iupa!" ta puzkarra bota "iupa!". Bueno, haren andrak, orduan haren andrak zelako miserixak pasatzen zittuen e? Zeaittik ez zauan, ez zauan dirurik eta gero gaiñera holako bat tokatzen bajatzun, ba ederki.

19. Redondo, egunkari-saltzailea

- **Erref:** BER-225/019
- **Iraupena:** 0:00:09. **Hasi:** 00:29:51. **Bukatu:** 00:30:00

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak

Laburpena:

Redondo izeneko bat ere bazegoen, egunkariak saltzen zituen. Beraiek umeak zirela Redondoren etxeko teilatua konpontzen ari zirela teilatua erori zen eta hori ikustearren eskolara joan gabe geratu ziren.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-03-22

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com